BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3574

EBAZPENA, 2012ko ekainaren 18koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, musika-jarduera profesionaletarako diru-laguntzak emateko Balorazio Batzordeko bokalak izendatzeko dena eta Batzordearen osaera argitaratzeko dena.

Ikusirik musika-jarduera profesionaletarako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duen Kulturako sailburuaren 2012ko maiatzaren 10eko Agindua.

Kontuan izanda agindu horren 8. artikuluan xedatuta dagoela aipaturiko diru-laguntzak emateko Balorazio Batzorde batek ebazpen-proposamena egingo duela eta batzorde horretako bokalak izendatzea eta osaeraren argitaratzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez emango direla.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Balorazio Batzordearen kideak izendatzea eta bere osaera argitaratzea. Beraz, Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: Mikel Toral López, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Idazkaria: Imanol Arana Ariz, Kultura Saileko teknikaria.

Bokalak:

a) Musika-partituren edizio inprimatuak: Jon Bagües Erriondo; Itziar Larringa Cuadra; Jose Manuel Tife Iparragirre.

b) Banakako musika-proiektuak: Iñaki Zaratiegi Armendariz; Aintzane Camara Izagirre; Odile Kruzeta Olañeta. Ordezkoa: Irene Larraza Aizpurua.

c) Musika-ekimen enpresarialak: Jon Bagües Erriondo, Cesar Ibarretxe Azkueta; Irene Larraza Aizpurua. Ordezkoa: Odile Kruzeta Olañeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 18a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.